

Basoetako artxiboak

ITALIAN NEMI, Galian Luc, Galizian Lugo eta Nemetobriga... Amaierarik ez du munduko baso sakratuen zerrendak. Geurean ere izango ziren, bada! Basoetan azokak, jaiak, batzarrak, sakrifizioak... zer ez zen egingo garai batean. Basoak, eta zuhaitzak, etengabe berritzearen gaitasuna, eta zeruak, lurra eta gure espiritualtasuna batzen ditu.


Konkistatzaileek mendeen hartutako herri bat zapaldu eta oinkatu nahi zutenean, haren baso eta zuhaitz sakratuak eraisten zituzten. Lucanok dioenez, Zesarrek, lehen mendeen, galiarren baso sakratuetako bat suntsitu zuen, erromatarren ustetan paganoak ziren gurtzak ezeztatzeko. Zerua-
ren eta lurraren arteko lotura horren faltak menhirren kultura sortu zuela dioenik bada. Geurean Gernika dugu lekuko.

Hemen zuhaitzak begirune handiz hartu izan dira. Erromatarren garaiko Akitania aldeko hilarrietan “Arixo deo”, “Artehe deo”, “Fago deo” eta “Leheren deo” (haritz, arte, pago eta ler jainko) eskaintzak azaltzen omen dira.

Gure ekialdeko mugako Bigorra eskualdean ere pagoa gurtzen zutelako arrastorak daude, lauburuekin batera. Zuhaitz gurtza zahar hori, goseari aurre egiteko, haien fruituei lotua egongo da, inondik ere: pagotxak, ezkurak eta pinaziak. Pagoari lotutakoaz, adibidez, Olivier de Marliavek halaxe dio.

Manuel Lekuona idazle eta apaizak esaera hau jaso zuen: “Lizarra ez da bedeinkatu behar, berez da bedeinkatua”. Beste apaiz batek, R. M. Azkuek, zuhaitzei zor zitzaientzen begirunea ederki adierazten duen esaera jaso zuen. Zuhaitz bat eraitsi behar zuen basomutil egurgileak honela esaten omen zion: “Guk botako zaitugu eta barkatu iguzu”.

Apaiz horien sekta, zuhaitz eta baso sakratuen zaindarien beldur izan da. Tokian tokiko jakinduria-



JAVIER PÉREZ-CC BY SA

ren jagole ziren xamanak, aztiak, sorginak... ixilpean erakusten zituzten nekazaritzaren egutegiak, astronomia, gorputzerako eta arimarako sendabelarrak eta abar. Sektaren izua hedatzeko oztopo. Basoak suntsituz jakintsu haien “artxiboak” desagertzen ziren. Gero, gurutzeak jarrarazi zituzten basoen gailurretako mendi tontorretan.

Eskerrak oraindik ere basorik badugun. Octavio Pazek, adibidez, basoan ibiltzea eta alaitasun intelektuala paretzen zituen. ■



Hostazuriaren koloreak

HOSTAZURIA (*Sorbus aria*) gure lurretako genero garrantzitsu batekoa da, Sorbustarrak. Zuritik asko du zuhaitz honek: hostopeko barban sarria eta lore multzo ikusgarriak. Gero gorrirako bideak ere hartzen ditu: loreak pikor ale gorri-gorriak emango ditu, txoriak erakarri eta fruitua jenez haziak barreia ditzaten. Zura ere zuri eta gorri artekoa du. Batzuen zuriagoa, gorritzagoa besteena. Denena ona, ebanista zurgin eta arotzen gutizia. Gaur egun ale gutxi batzuk besterik ez dira gertzen bertakoak, naturalak. Lorategi eta baratzeetan gehiago landatzen ari dira, ikusgarri. ■



JAKOBA ERREKONDO